

***Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.***

**Tarea 2-A Elección de un texto de situación no educacional**

**MODELO DE FICHA**

TEXTO.

**Zer da zuretzat udazkena?**



**Udazkena zer da? Erantzun astronomikoa bat izan liteke, baina bakoitzarengan zer ote da udazkena? Galdera horri erantzuten diote pertsona hauek.**

«Natura eta naturaren koloreak da udazkena»

*Adolfo Morais*

**Jaurlearitzako Meteorologia eta Klimatologia zuzendaria**

«Natura eta naturaren koloreak. Udazkenean, normalean, ibilaldi luzeak egiten ditut, ondoak bilatzeko edo mendiko koloreak ikusteko. Bakar-bakarrik joaten naiz. Natura koloretan ikusteko garaia da. Gure lurraldean berdea da kolore nagusia, baina udazkenean izugarri aldatzen da: gorriak, horiak... kontraste polita da. Gainera, hego haizeak hegaztiak ekartzen ditu eta horiek ikustea ere polita da».

«Gaztaina, intxaur eta ezkur garaia da»

*Elena Artika*

**Gurelurreko biologoa**

«Paisaia politenez gozatzeko urteko sasoirik onena da. Udazkeneko irudi eder bat, bat esateko, Arbaiungo arroilarena da. Zuhaitz klase ugari daude, bakoitza bere kolorearekin, eta guztien artean irudi kromatikoa sortzen dute. Niretzat, gaztaina, intxaur eta ezkur garaia da. Udazkenean basoak elikagai kopuru handia ematen du. Gizakientzat oso garai garrantzitsua zen, neguan irauteko, eta gaur egun ere basoko bizitzarentzat ere horrela da».

«Udan hazitako kumeak bizitzen ikasten dute»

*Andres Illana*

**Gaden talde ekologikoko kidea**

«Oso sasoi garrantzitsua da, nahiz eta trantsiziokoa dirudien. Udan hazi diren kumeak bakarrik bizitzen ikasten duten garaia da. Horregatik, errepidean animalia asko hiltzen diren garaia ere bai. Gazteak dira, eta negua hasi aurretik

ikasi behar dute bizitzen. Udazkena goxoa bada, askok iraungo dute bizirik, baina gogorra bada, ez dute udaberria ikusiko. Gainera, udazkenean euria egiten hasten da, eta horri esker oinatzak ikus ditzakegu lurrean».

«Saroia utzi eta beheko larreetara jaisteko unea»

*Joseba Insausti*

**Aralarko artzaina**

«Saroia uzteko garaia da. Egunak laburtzen doazen heinean, mendi garaietako larreek ezin dute ase jada artaldearen beharra. Artaldea gustura etortzen da behera. Artzaina, ordea, ez da hain alai jaisten, bai baitaki beste zazpi hilabetez ez duela mendiko lagun giroaz, iluntzeko hizketaldiez eta egun lasaiez gozatuko. Udazkenak egun gogorak dakarzkigu gogora, lo lasai egin ezin dezakegun garaia. Geure buruan mendira itzultzeko atzera kontaketa hasi da».

ASIGNATURA	Euskal Hizkuntza eta Literatura
CURSO	DBHko 4. maila
CENTRO	Sancho III, el Mayor
DEPARTAMENTO	Euskera
PROFESOR / A	Txaro Etxetxipia
<b>FUENTE</b>	
AUTOR	Adolfo Morais, Elena Artika, Andres Illana eta Joseba Insausti
TÍTULO	Zer da zuretzat udazkena?
EDITORIAL	<a href="http://www.ikasbil.net">www.ikasbil.net</a> HABE IKASBIL
AÑO	2007
PÁGINA	361437 zkia.
ISBN	
SOPORTE	Idatzia
FORMATO	
TIPO	<b>DESKRIBAPENA</b>
USO	
<b>ESTRATEGIAS DE LECTURA</b>	
ANTES DE LA LECTURA	Norberak honako galdera honi -“Zer da zuretzat udazkena?”- erantzun egingo dio. Koadernoan idatziko du. Erantzunak hiruzpalau lerro edukiko du. Zer da Berria? Zer da HABE? Zer da ikasbil? (Denon artean erantzun)

DURANTE LA LECTURA	Gako hitzak aztertuko dira: urtaroak, natura, mendia, koloreak, perretxikoak, fruituak, larreak, artzantza...	
DESPUÉS DE LA LECTURA	Berriz galdera berari -“Zer da zuretzat udazkena?”- Ikasleak erantzun eginen dio idatziz eta hasierako eta bukaerako erantzunak alderatuko ditu.	
<b>PROCESOS LECTORES</b>		
RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	Zein dira udazkeneko koloreak Adolfo Moraisentzat?
	Respuesta	<i>Naturako koloreak dira: gorriak, horiak...</i>
	2.	Noiz eta zeri esker ikusten ditugu oinatzak lurtean?
	Respuesta	<i>Udazkenean egiten duen euriari esker.</i>
COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Sasoi garrantzitsua da udazkena. Zergatik?
	Respuesta	<i>Fruituen garaia delako; basoak elikagai kopuru handia ematen duelako; garai honetan kumeek bakarrik bizitzen ikasten dutelako; artzaienek menditik jaitsi behar dutelako edota mendiak kolore polita duelako.</i>
	2.	Idatz itzazu testuko hitz nagusiak.
	Respuesta	<i>Kromatismoa, ibilaldiak, hegaztiak, transizioa, fruituak, oinatzak, onddoak, prestakuntza.</i>
INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	Artisten sasoi al da udazkena?
	Respuesta	<i>Izan daiteke, Naturaren kolorea pintatzeko, argazkiak egiteko edo poesia egiteko prestatzen baita.</i>
	2.	Ongi eginak daude deskribapenak?
	Respuesta	<i>Bai, nahiz eta norberak bere ikuspuntutik egin duen.</i>
VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Zure ustez, agertzen diren izenburuak egokiak dira?
	Respuesta	<i>Bai, testuen laburpenak dira eta.</i>
	2.	Deskribapen subjektiboak dira hauek. Zergatik?
	Respuesta	<i>Ikuspuntu desberdina agertzen delako. Norberaren izaera eta lanbidearen araberako erantzuna ematen duelako.</i>
VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Atera ezazu deskribapen baloitzetik ideia nagusi bat.
	Respuesta	<i>1. Natura eta naturaren koloreak da udazkena. 2. Fruituen garaia da. 3. Udan hazitako kumeak bizitzen ikasten dute.</i>

		<i>4. Artzaina menditik jaisteko garaia da.</i>
	2.	Nahiko informazioa lortu duzu udazkenaren gaineko deskribapena egiteko?
	Respuesta	<i>Bai. Lau lagunen ikuspuntu edo fokalizazioa kontuan harturik, errezago sortzen ahal da deskribapena, lauretan bata bestearekiko osagarriak baitira.</i>
<b>PUESTA EN PRÁCTICA - OBSERVACIONES</b>		